

## Eusko Alkartasunaren sorreraz hitz bi

*Argia*, 1.123. zk., 1986-11-02.

Eusko Alderdi Jeltzalearen barruan Eusko Alkartasunaren sorrerak zer esan nahi duen.

Hau izan da *Argia* aldizkariak eskatu didana. Batetik, nik ezin diot astekari langile-bizkor honi nire eritzirik ukatu. Bestetik, lantxo hau idazteko geratu zaidan beta bakarra, Pakearen Eguna izatea suertatu den igandea da. Barruko eta nahizko bi bide-muga hauek baldintzatzen dute, bada, nire erantzuna; ez da, hala ere, ihesbide gertatuko.

Nik neuk ezin dut arazo mingarri hau barrutik besterik ikusi; izango da, bi alderdietan, gauzak kanpotik ikusten diren patxararekin hartu dutenak. Etxe-barruko ez kanpo, bestalde, ikusle bakarrik izan diren kanpotarrei eskaini diogun ikuskaria ez da ereduzkoa izan; aitzitik, lotsagarria izan da. *Alderdia* erreferentzi-puntua bezala zeukaten euskaldun eta erdaldun asko eskandalizatu dugu, eta beragan zuten itxaropen anitz suntsitu.

Hara hor kaltea, gaur oraindik neurritzeko gauza ez garen galera.

Baina honez gain, barruko garenak hartu dugun jipoa ez da, gero, arinkeri barez uxatzeko modukoa. Azken bi urte hauetan galgan pasa gaituzte behin eta berriz, dozenaka aldiz! Nire aitaren aroztegiko ohol-galgak atarutzen zuen haina txirbil, sua pizteko erabiltzen genuen txirbila!, (...). Ni neu zatiketa onartzetik oso urrun nengoen; gauza beraren lekuko naiz Garaikoetxea jaunaren kasuan, eta esan dezaket Pake Eguna honen izpiritua batere lohitzeko beldurrik gabe, zatiketarik ez zuela inolatan ere nahi. Baina honek ez zuen bere eskuetan ezer; geuk, gainontzeko *kritikoek* ere ez; hemen agintea eta ekinbidea, erabakiak hartzeko gai zena zen, eta honek, Euskadi Buru Batzarreko buru zenak, ez zuen akordiatzeko ahalmena eta garaia heldu zen unean, jaurtiketaren bidea behin eta berriz hartu besterik egin.

Hau da nik neuk ikusi eta sentitu dudana.

Egia da, nire ustez, auzi honetan batez ere bi pertsona arteko ezinikusiak izan duela joko nagusia. Honen sorreran egon diren arazo pertsonalak, berezko diren jite ezberdinak daude. Bestalde, batak heredentzia politikoa berea zela pentsatzea *lojika politikoaren* barruan zegoenez gero, besteak Ajuriagerra eta Irujoren eskutik agintebidea hartu eta gero herriaren babesa zabala zilegia izan zen. Eta hau da, nik uste, LTH istilugarri horren oinarriak jartzerakoan joko oraindik gehiena zatitu zuena, eta ez alderantziz: herriak Lehendakari hautatu zuenak bazekien Aberri baten zorikaitza izan den herrialdekeriaren konponbidea, denena den Jaurlaritza sendo bat osatzean zegoela.

Diferentzia hauez gainera, izango dira seguraski, beste herrietan bezala, beste ezberdintasunak, baina demokraziak dituen bidez konponduak izan daitezkenak. Baina ez dekreto bidez eta kosta hala kosta moztekoak.

Nahikoa nozitu dugu euskaldunok kanpoko diktaturaren eraso maltzurragandik, orain etxean zigor bera isilik onartzeko. Eta galga gaizto honetatik hainbeste aldiz pasarazi gaituzte bi urte hauetan, gure ahaleginak baztertu eta irrigarri

moduan utzi nahi izan gaituztenean, ahalmena eta kemena, biak, "aparatoan", expulsioetarako aparatoan, zeudela uste zutenen aurka, guk Euskadi-ri zerbitzen jarraitzeko modu bakarra, Alderdi *abertzale* bat eratzea izan dela, ezinbestean.

Naiz eta izen hau debekatzeko tranpan erori bagara ere.

Fede ona, gauza ederra da oraindik.

Hemendik aurrerakoa, bi alderdien jokoak eta estiloak erakutsiko du.